



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

eGela eskuliburua

BERTARATZEAREN ERRESGISTROA, EZKUZ ETA AUTOMATIKOKI

www.ehu.eus

Aurkibidea

Deskribapena.....	3
Konfigurazioa	3
Erabiliko diren egoerak (Egoera-multzoa).....	4
Saioak gehitzeko	6
Eskuzko erregistroa (irakasleak edo ikasleek) edo erregistro automatikoa ("Ikasleen auto-erregistroa").....	6
Behin-behineko erabiltzaileak.....	8
Bertaratzeen erregistroa kudeatzea	8
Saioak.....	8
Txostena	9
Esportatu	9

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko eCampusak landu du. Eskuliburu hau eta eCampus-eko gainerako eskuliburuak web orri honetatik deskarga daitezke <https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/eskuliburuak>

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mendean dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.

Deskribapena


eGelan instalatutako bertaratzearen erregistro moduluak ikasleak irakasgaiaren saioetara joan diren adierazteko aukera ematen du.

Moduluak bi saio mota desberdinekin egiten du lan: "Ikasle guztiak" eta "Ikasle-taldeak". "Ikasle guztiak" motako saioetan matrikulatutako ikasle guztiek parte hartu beharko lukete. "Ikasle-taldeak" motako saioek eGelan definitutako ikasle-taldeetatik zein joan beharko luketen zehazteko aukera ematen dute. Saio batera bertaratu direnak adierazteko momentuan, definitutako saio motari dagozkion ikasleak bakarrik agertuko dira zerrendan.

Bertaratzeak hiru modutan erregistra daitezke: 1) irakasleek eskuz, 2) ikasleek eskuz eta 3) automatikoki, plataformako erregistroen arabera).

Konfigurazioa

Zure ikastaroan bertaratzearen erregistro moduluak aktibatzen, aktibatu ikastaroaren edizioa 1), sakatu "**Gehitu jardura edo baliabidea**" (1.1) eta aukeratu "**Bertaratzearen erregistroa**" (1.2) motako jardura.



Bertaratzearen erregistroko jardueraren konfigurazioa eGelako beste edozein jarduera edo baliabiderenaren antzekoa da, bi atal izan ezik.

1. "Moduluen ezarpen komunak" ataleko "**Talde-modua**" aukeran adierazten den balioaren arabera, jardueraren defini daitezkeen saio motak mugatu egiten dira.
 - **Talderik ez.** Jardueraren barruko saio guztiak "Ikasle guztiak" motakoak izango dira. Hau da, bertaratu diren ikasleak markatzeko zerrendan eGelako kurtsoan matrikulatuta dauden ikasle guztiak agertuko dira.
 - **Taldeek ezin elkar ikusi.** Jardueraren barruko saio guztiak "Ikasle-taldeak" motakoak izango dira. Saio bakoitzerako eGelako kurtsoan definituta ditugun taldeetatik zeintzuk bertaratu behar diren saio horretara adierazi beharko da. Bertaratzea markatzeko zerrendan talde horietako ikasleak agertuko dira bakarrik.
 - **Taldeek elkar ikusten dute.** Jardueraren barruko saioak "Ikasle guztiak" edo "Ikasle-taldeak" motakoak izan daitezke. Saio bakoitza definitzean "Ikasle guztiak" edo "Ikasle-taldeak" motakoa den adierazi beharko da. Bertaratzea markatzerakoan, eragindako ikasleak agertuko dira bakarrik zerrendan: matrikulatutako ikasle guztiak, saioa "Ikasle guztiak" motakoa bada, eta adierazitako taldeetakoak, "Ikasle-taldeak" motakoa bada.
2. "Baldintza osagarriak" ataleko "**Sare-helbide lehenetsia**" eremuak jarduera honetan definitutako saioetan zein IP helbidetatik markatu daiteken bertaratzearena zehazteko aukera ematen du.

Erabiliko diren egoerak (Egoera-multzoa)

Atal honetan asistentzia kontrolatzeko erabiliko den nomenklatura kudeatzen da. Printzipioz, erabiltzen den egoera-multzoa honako hau da: Presente, Berandu, Salbuetsia eta Ez dago, baina irakasle bakoitzak nahi duen moduan pertsonaliza dezake, edo egoera-multzo berriak definitu. (1).

Saioak	Gehitu saioa	Txostena	Esportatu	Egoera-multzoa	Behin-behineko erabiltzaileak	
Egoera-multzoari egindako aldaketek gordetako bertaratze-saioei eragingo die eta kalifikazioetan eragin dezakete.						
1. egoera-multzoa (P B S E) ▾						
1. egoera-multzoa (P B S E) 1						
Egoera-multzo berria						
#	Akronimoa	Deskribapena	Puntuak	Eskuragarri ikasleentzat (minutuetan) ?	Automatikoki ezarria bertaratzea adierazi gabe dagoenean ?	Ekintza
1	P 2	Presente 3	2.00 4	5	<input type="radio"/> 6	<input type="checkbox"/>
2	B	Berandu	1.00		<input type="radio"/>	<input type="checkbox"/> 7
3	S	Salbuetsia	1.00		<input type="radio"/>	<input type="checkbox"/>
4	E	Ez dago	0.00		<input type="radio"/>	<input type="checkbox"/>
*						<input type="button" value="Gehitu"/>
<input type="button" value="Eguneratu"/>						

Definitzen den egoera bakoitzeko, akronimo bat (2) eta deskribapen bat (3) adierazi behar dira.

Aukeran, puntuazio bat eman dakioke egoera horri, ondoren kalifikazio gisa erabiltzeko (4).

Ikasleei beren bertaratzea adierazteko aukera emango badiegu, saioa hasten denetik zenbat denbora (minututan) dagoen eskuragarri egoera bakoitza (5).

Halaber, adierazi daiteke zer egoera esleituko zaien egoerarik adierazten ez duten ikasleei (6).

Azkenik, egoera bat ezabatu edo ezkutatu egin daiteke, erabili ezin izateko (7).

Saioak gehitzeko

Kontrolatu nahi ditugun saioak gehitzeko, "Gehitu saioa" atala hautatu behar da.

Pantaila horretako ataletan honako aukera hauek aurkituko ditugu:

- **Mota (1):** jarduera definitzean adierazi dugun "talde moduaren" arabera, saio mota ("Ikasle guztiak" edo "Ikasle-taldeak") zuzenean agertuko da edo saio mota aukeratzeko eta eragindako taldeak adierazteko aukera izango dugu.
- **Data (2):** zer egunetan izango den kontrolatu nahi den klasea.
- **Ordua (3):** Kontrolatu nahi den klaseko ordu-tartea.
- **Egoera-multzoa (4):** ezarpen hau egoera-multzo bat baino gehiago zehaztuta baditugu (ikus **Erabiliko diren egoerak (Egoera-multzoa)**) agertzen da bakarrik.
- **Deskribapena (5):** saioa deskribatzeko.
- **Sortu egutegiko ekitaldia saio honetarako (6):** aukera hori markatuz gero, ekitaldi bat sortuko da eGelako ikasgaiaren egutegian definitutako saio bakoitzeko.

"**Saio errepikakorra**" atalean (6), zehazten ari garen saioa aldizka egingo dela adieraz dezakegu. Horretarako, "Errepikatu goiko saioa hurrengo irizpideen arabera" aukera markatu behar da, eta saioa asteko zein egunetan egiten den, zenbat astez behin errepikatzen den eta noiz arte errepikatu nahi den hautatu behar da.

Eskuzko erregistroa (irakasleak edo ikasleek) edo erregistro automatikoa ("Ikasleen auto-erregistroa")

"Ikasleen auto-erregistroa" atalean hiru aukera aurkituko ditugu asistentziak nola markatu behar diren ezartzeko (A, irakasleek eskuz, B, ikasleek eskuz eta C automatikoki, plataformako erregistroen arabera).

- A. **Irakasleek eskuz** markatzen dituzte bertaratzeak. Hori da lehenetsita agertzen den aukera. "Baimendu ikasleek euren bertaratzea erregistratzea" laukitxo (1) **desmarkatuta** dago

"Baimendu ikasleek euren bertaratzea erregistratzea" (1) laukitxo markatuta badago, beste aukera batzuk aukera daitezke.

- B. **Ikasleek eskuz** markatzen dute asistentzia. "Markatze automatikoa" (2) menuan, "**Desgaituta**" (2.1) aukera markatu.
- C. **Sistemak automatikoki** markatzen du bertaratzea saioan ezarritako ordutegian jarduera-erregistroak daudenean. "Markatze automatikoa" (2) menuan, "Bai" aukera markatu (2.2). Beharrezkoa da minutu-muga bat ezartzea "Presente" egoeran (ikus "Egoera-multzoa" > "Eskuragarri ikasleentzat (minutuetan)", egoeren konfigurazioan. GARRANTZITSUA: saioa, funtsean, Collaborate bilera birtual batean egingo bada eta

ikasleak saiorako ezarritako epea baino lehen sartzen badira Collaborate aretora, ez da erregistrorik sortuko eGelan, eta, beraz, ez da erregistratuta geratuko bertaratzea.

The screenshot shows the 'Ikasleen auto-erregistroa' form with the following elements and callouts:

- 1:** Checkmark for 'Baimendu ikasleek euren bertaratzea erregistratzea'.
- 2:** 'Markatze automatikoa' label.
- 2.1:** 'Desgaituta' dropdown menu.
- 2.2:** 'Bai' option in the dropdown menu.
- 2.3:** 'Ezarri markatu gabe gisa saioa amaitzean' option in the dropdown menu.
- 3:** 'Ikasleentzako pasahitza' label.
- 4:** Checkmark for 'Aukeratu automatikoki eskuragarri dagoen egoerarik altuena'.
- 6:** Checkmark for 'Erabili lehenetsitakoa'.
- 7:** 'Ez' dropdown menu.
- 5:** 'Erakutsi gutxiago...' link.

Buttons at the bottom: 'Gehitu' (orange) and 'Utzi' (grey).

Gainera, "Ezarri saioaren amaieran markatu gabe" (2.3) aukerak ikasleek eskuz markatzeko aukera gisa funtzionatzen du (desaktibatuta – 2.1), baina automatikoki markatzen du lehenetsita dagoen egoera (normalean, "Ez dago") saioa amaitzean, bertaratzea markatu ez dutenei.

Ikasleei beren bertaratzea markatzeko aukera ematen bazaie ere, irakasleek edozein unetan markatu ahal izango dute ezer markatu ez duen norbaiten bertaratzea, edota markatuta dauden bertaratzeak ezabatu.



Ikasleentzako bertaratzea markatzeko aukera saiorako zehaztutako ordu-tartean baino ez dago aktibo. Ikasleek ezin dute adierazi bertaratu direnik saioa hasi aurretik, ezta amaitu ondoren ere.

- **Ikasleentzako pasahitza (3):** Pasahitz bat adierazteko aukera ematen du. Pasahitz hori ikasleei eskatuko zaie klasera bertaratu direla markatu nahi dutenean. Saio bakoitzerako pasahitza ausaz sortzea aktiba daiteke, baita QR kode bat sortu ere ikasleei bertaratu direla adierazteko prozesua errazteko.
- **Aukeratu automatikoki eskuragarri dagoen egoerarik altuena (4):** Aukera hau hautatuz gero, bertaratuko direla adierazten duten ikasleei zuzenean esleituko zaie kalifikazio handiena duen egoera. Gainerakoek baino kalifikazio handiagoko egoerarik ez balego, ikasleek errore bat jasoko lukete eta haien bertaratzea ez litzateke erregistratuta geratuko.

Gainera, "Erakutsi gehiago" sakatuta (5), aukera osagarri hauek agertuko zaizkigu.

- **Behartu sare-helbide zehatza (6):** "Erabili lehenetsitakoa" aukera desmarkatuz gero, bertaratzea adierazteko erabili ahal izango diren gailuetako IP helbideen tartea zehaztu ahal izango dugu.
- **Saihestu ikasleek IP helbidea partekatzea (7):** "Bai" aukeratuz gero, bi ikaslek ezin izango dute adierazi klasera bertaratu direla gailu bera erabiliz. "IP helbidea desblokeatzeko zehaztutako denbora-tartea (minutuetan)" aukerak aukera ematen du adierazteko bi ikaslek klasera bertaratu direla adierazteko gailu bera erabili ahal izan dezaten zenbat minutu igaro behar diren.

Behin-behineko erabiltzaileak

Atal honetan erabiltzaileak sor daitezke, bertaratu daitezkeen zerrendan ager daitezzen eta irakasleek haien bertaratzea adieraz dezaten. Sortzen diren behin-behineko erabiltzaile horiek ezin dira eGelara sartu eta, beraz, ezin izango dute beren bertaratzea adierazi. Irakasleek egin behar dute.

Aukera hau erabilgarria da gure eGelako kurtsuan matrikulatuta ez dagoen pertsonaren baten bertaratzea erregistratu behar badugu.

Sortu diren behin-behineko erabiltzaileak editatu, ezabatu edo eGelan dagoen beste erabiltzaile batekin batu daitezke.

"Batu erabiltzailea" aukerarekin, behin-behineko erabiltzaileak eta eGelako erabiltzaileak dituzten bertaratze-erregistroak taula honen arabera batuko dira:

eGela erabiltzailea	Behin-behineko erabiltzailea	Ondorioak
Bertaratze-datuak ditu	Bertaratze-datuak ditu	Behin-behineko erabiltzailearen bertaratze-datuak eGelako erabiltzailearen bertaratze-datuei gehitzen zaizkie. Desadostasunik izanez gero, behin-behineko erabiltzailearen datua mantenduko da.
Ez du bertaratze-daturik	Bertaratze-datuak ditu	Behin-behineko erabiltzailearen bertaratze-datuak eGelako erabiltzaileari esleitzen zaizkio.
Bertaratze-datuak ditu	Ez du bertaratze-daturik	eGelako erabiltzailearen bertaratze-datuak mantentzen dira.

Kasu guztietan, erabiltzailea batzeko prozesua behin-behineko erabiltzailea automatikoki ezabatuz amaitzen da.

Bertaratzeen erregistroa kudeatzea

Saioak

Sortu diren saio guztiak kudeatzeko aukera ematen du, hainbat filtro aplikatuz bilaketa errazteko. (1).

#	Data	Ordua	Mota	Deskribapena	Berriketa
1	al. 7 ira 2020	12PM - 2PM	Ikasle guztiak	Regular class session	[Icons]
2	al. 14 ira 2020	12PM - 2PM	Ikasle guztiak	Regular class session	[Icons]
3	al. 21 ira 2020	7AM - 3PM	Ikasle guztiak	Regular class session	[Icons]
4	al. 21 ira 2020	12PM - 2PM	Ikasle guztiak	Regular class session	[Icons]
5	al. 28 ira 2020	12PM - 2PM	Ikasle guztiak	Regular class session	[Icons]

Zerrendako saio bakoitzeko, QR kodea eta sortutako pasahitza lor/erakuts daitezke (2), ikasleek beren bertaratzea adierazi ahal izan dezaten, horrela konfiguratu bada.

Zerrendan, irakasleek ikasleak saio bakoitzera bertaratu diren adierazteko aukera dute dagokion ikurra sakatuz. Saioak oraindik bertaratze-daturik ez baditu, (4). ikurra agertuko da, eta jada bertaratze-datuak grabatua baditu (irakasleek sartuta edota norberak markatuta, (3). ikurraren bidez adieraziko da.

Saioko bertaratze-datuak kudeatzean, klasera bertaratu behar ziren ikasleen zerrenda agertuko da, saioa definitzerakoan aukeratu den saio mota arabera, eta irakasleek bertaratzea adierazi edo aurrez adierazitakoa aldatu ahal izango dute. Ikasleek markatutako bertaratzeen kasuan, Oharrak eremuan "Norberak markatuta" mezua agertuko da.

(5). ikonoaren bidez, saioaren ezarpenetara sar gaitezke, eta, beharrezkoa bada, aldatu. (6). ikonoaren bidez, saioa ezaba daiteke.

Hainbat saio ere hauta daitezke, eta (7). menuaren bidez, hautatutakoak ezabatu edo beren iraupena aldatu.

Txostena

"Txostena" atalari esker, orain arte izandako bertaratze-erregistroa ikus daiteke. Informazioa errazago ikusteko hainbat filtro eskaintzen dira.

Esportatu

"Esportatu" atalak bertaratzeari buruzko informazioa Excel, OpenOffice edo testu laua formatura esportatzeko aukera ematen du. Esportatu beharreko informazio zehatza konfiguratzea ahalbidetzen duten hainbat aukera eskaintzen ditu sistemak.